

«Ez dut bizimodu eroso

hautatu,

baina bai gustukoa»

Bere bizitzako laugarren luzean dago Josu Iztueta (Tolosa, 1958), hirugarren ziaboga emanda. Bizimodu bat hautatu zuen, bidaiekin bidea egitea, eta lau hamarkada osatu ditu dagoeneko. Nairobiarra autobus ezagunarekin bi hamarkada, furgonetarekin mende honetan. Gauza den bitartean molde berean segitzeko asmoa omen du, pandemiak estutasun ekonomiko dezente ekarri badizkio ere. Kritiko mintzatzen da gure gizarteko bizimoduarekin: «Zor-tedunak gara, baina ez gara jabetzen, ez dugu jabetu nahi; edo ez zaigu komeni».

Nolakoa zen giroa zure gazte garaian, 70eko hamarkadan? Inguruan arra sartu ziguten lagunak izan genituen: Ramon-txo Elozegi, Antxon Bandres, Lukas Mendikute, Mikel Arras-toa... Ikus-entzunezkoak eskaintzera etortzen ziren izar-rak ezagutzeko aukera ere izan genuen: Cesare Maestri, Kurt Diemberger, Louis Audoubert... Etxean ez geneukan telebistarik, eta, noski, ezta telefonorik ere. Gure Tolosako kale berean zegoen Alpino Uzturre mendi elkarteak munduari begira jarri gintuen. Tes-tuingurua ere halakoxea zen: Franco hil berri, Lemoizko kon-tua, feminismoaren hasierako olatua, abortua, drogak... Garai nahasi bezain interesgarriak ziren.

Gu mendiak eta mendi giroak erakarri gintuen, horrek be-rekin zekarren arriskuarekin. Aralarren hasi eta pixkanaka Pirinioetara hurbildu ginen: 15-16 urterekin Telera mendile-

JOSU IZTUETA

BIDAIARIA

Abenduaren 12an beteko ditu 40 urte Nairobiarra autobusak, Tolosatik mundura 100 bidaiatan 2.000 lagun eraman zituen

a, milioi bat kilometro inguru osatuz.

Oporrak, edo bizitzeko modu ezberdina.

Orduko izpirituari eusten dio Josu Iztuetak,

mugak muga.

Andoni Urbistondo

rrora joan neguan, edota Balaituseko Crestas del Diablora eskalatzer

a. Arrisku gehiegitxo agian. Akabatu ez ginenean!

Badira 40 urte luze Nairobiarra munduari biraka hasi zela. Zu ez zinen lehen autobus hartako kide izan.

Nik 17 urte nituela, eta Angelek (Ortiz) 18, gure lehen koltxea erosi genuen, Gordini zahar bat, bigarren eskukoa. 7.000 pezeta ordaindu genituen; gaztetatik ikasketak eta lana uztartzeak askatasun handia eman zigun. Gerora etorri zen Commer furgoneta eta azkenik autobusaren ideia.

Auto-stoppez Londresera eginiko bidaia batean ezagutu nituen Indiara joaten ziren Magic Bus mitiko haiek, eta pentsatu genuen antzeko zer-bait egin zitekeela Euskal Herrian. 1980. urtea zen; nik lehen bidaia hartara joaterik ez nuen izan, soldaduskatik libratzeko zeregin

ean nembilelako. Manuel Mokor

oa eta Angel Ortiz Nairobiraino joan ziren hoge

gei lagunekin; ia Afrika guztia gurutzatu zuten, 10.000 kilometro hiru hilabete

an, eta autobus hura Kenyako Gobernuari saldu zioten, eskola bateko futbol talde batentzat.

Afrikara egin zituen bidaiak Nairobiarrak. Kontinente hura erabat ezezaguna izango zen orduan, eta Internet sarerik ez, artean...

Oso jende gutxi ezagutzen genuen han izana; Sahara inguruan ibiliak ziren gipuzkoar batzuk, Nafarroako espedizio bat... Pentsa, han bizi izandako misiolariekin bilduta lortu genuen informazioa. Joan aurreko lanak ere ez ziren errazak. Gogoan dut nola 350.000 pe-

zeta hartu ezkutuan eta Parisera nola joan nintzen hoge

i pasaporterekin, Senegal, Ni-ger, Mali eta Alto Voltako (egun Burkina Faso) enbaxadeta

ra bisak egitera. Ez jakinda hobe, mugan Espainiako Poliziak diru horrekin harrapatu banindu non eta nola buka nezakeen...

Eta 1982tik aurrera, bigarren autobusean buru-belarri.


Angelekin 20 urte egin nituen. Bigarren autobusa izatez mudantza kamioi bat zen. Bost hilabete eman genituen “etxe ibiltari” moduan egokitzen, eta planteamendua aldatu egin zen. Geure neurrira egin-dako bizimodua sortu genuen. Afrikan eta Europan barrena ibili ondoren, 1989an autobusa barkuz Kanadara bidali genuen. Alaskatik Ushuaiaraino, Amerikan zehar, 300.000 kilometro egin zituen hara eta hona. Bigarren autobus hori Txilen utzi genuen 2002an.

Ze funtzionamendu zeukan Nairobiarrak?

Dozena erdi bidaia antolatzen saiatzen ginen urteko. Toki ezberdinetan geratu izan zen autobusa gu etxera gentozenean: kanpin batean, paper fabrika-ko aparkalekuan, Euskal Etxeko patioan, Brasilgo nekazari batzuen soroetan... Hara bueltatzen ginenean izaten genuen astebeteko lana: gauzak konpondu, dena garbitu, txukundu, margotu, eta segi.

Igual denbora gehiago pasatu duzu munduan barrena Tolosan bertan baino.

Kalkulu batzuk buruz eginda, igual pasatuko nituen bizitzako hiru urte oso Eskandinavian, Ipar Amerikan bi, Afri-



Idoia ZABALETA | FOKU

kan eta Hego Amerikan ere beste horrenbeste... Hala ere, garbi utzi nahiko nuke pozik joan izan naizela, baina baita oso gustura etxeratu ere. Beti egon izan naiz hemengoari oso lotua; ez dut deskonektatzeko beharrik sentitu.

Zer jende mota joaten zen zuekin?

Profil ezberdinetako jendea: lagunak, ezagunak, lagunak ezagunak, ezagunen lagunak... Banoa agentzietatik ere etortzen ziren, eta askok errepikatzen zuten. Hegazkinak dena garestitzen zuen orduan. Pentsa... orain 30 urte ez zegoen oraingo txartel merkerik. Hego Amerikarako hegaldiak batez beste hilabete osoko soldata baino gehiago balio zuen.

Nolakoa zen egun bat Nairobitarren?

Geure buruaren nagusi ginen, baina baita langile ere. Geure

«Kalkulu batzuk buruz eginda, igual pasatuko nituen bizitzako hiru urte oso Eskandinavian, Ipar Amerikan bi, Afrikan eta Hego Amerikan ere beste horrenbeste...»



kasa ibiltzen ginen, lo hemen, jan han... Beti zegoen xelebren bat urduritasuna sortzen zuena, baina tira. Etxeko erosotasunean denok gara pertsona onak, baina, gose pixka bat, hotz edo bero handi samarrak eta beldur apur bat gehituz gero, gizakiak ez du berdin erre-akzionatzen. Guk garraioarekin ostatu eta jateko lekua eskaintzen genuen, eta horrek abantaila handia ematen zigun. Txandak antolatzen genituen lana egiteko. Ardura eta erabaki gehienak geuk hartzen genituen, baina zenbat eta bidaia parte hartzaileagoa, orduan eta aberatsagoa. 20 lagunekin ez zen erraza, dena den. Hasi ginenean nik 23 urte bakarrik nituen, eta Angelek 24. Adibidez, basamortua zeharkatu aurretik, 400 litro gasolio eta 500 litro ur beteko bidioiak hartu, eta horrela ibiltzen ginen, jakin gabe nora gindoa-zen, eguna nola bukatuko.

Akaso trabatuta geratzen ginen, eta bagenekien egun pare batean inor ez zela etorriko...

Beldurra eta jendearen pazientzia falta hori kudeatzen ikasi behar izan zenuten.

Askok ziurtasuna bilatzen du bidaietan, eta Nairobitarrek ez zuen halakorik bermatzen. GPSrik ez zegoen; gure orientazio tresnak iparrorratza, autobusaren itzala eta intuizioa ziren. Bezeroekin beldurra eta zalantza disimulatzen ikasi genuen. Lo egin gabeko gauak, mordoak: autobusaren mekanikak eragindako kezak, osasun arazoak, soinu arraroak, mugak... Arduraz jokatu beharra geneukan. Jendearen oporrak gure ogibidea ziren. Hori, bidaia ondo ateratzen bazen. Beste batzuetan, dirua galdu eta etxera.

Nairobitarraz gain, beste hainbat bidaia egin dituzu.

Beti bereizi izan ditut lan bidaiak eta espedizioak. Espedizio kideekin egoera muturrekoagoak bizi litezke, baina ardurak ere banatuagoak dira. Laponia, Groenlandia, Hiru Pauso Hiru Norabide, Pangea, Yukon... Espedizio horiek eskiz, piraguaz, bizikletaz edo oinez egindakoak dira. Mendian asko ibili naiz, mendi gidaria naiz, eta titulua badut. Egin ditut mendi ibilaldi eta trekkingak Alpeetan eta Himalaian, baina ez dut neure burua goi mailako mendi gidaritzat.

Bizi arriskuan egon zara noizbait?

Bai. Errepidean ibiltzeak bera-ekin dakar arriskua. Boliviako pista haietan esaterako, baina zortez sekula ez dugu istripurik izan. Gero hor daude aduanak, lurralde ezberdinetako errealitateak, paramilitarrak, narkoak... Noizbait sustoren bat izan dugu, horretantxe geratu dena. Espedizioetan ere aukeratu egin dugu arrisku handiagoetan ibiltzea. Klima bortitzak, izozketak, janari eskasia edo jarduerak berak dakarren arriskua. Baina guk aukeratuta joan izan gara, kapritxo, ez inork bidalita.

2002. urtean bukatu zen Nairobitarra.

Bai, Angel Ortizek bere bizitza motorren konponketetara bideratzea erabaki zuen, eta nik jarraitu nuen, baina furgoneta handi batekin. Filosofia berbera, baina formatu txikiagoan.

Bizitzako zer unetan zaude?

Batez besteko bizitza gurean 80 urtekoa bada, 62 urterekin esango nuke hirugarren ziaboga hartu eta laugarren luzea hasita nagoela. Osasunez ondo nago, dakidala, ez baitiot kasu handirik egiten.

Burua, behintzat, argi dauka-zu.

Ustez bai. Esan bezala, muturreko egoera batzuk bizitakoa naiz, eta buruak asko lagundu izan dit une kritiko horietan. Baikorra naiz izatez, ameslaria eta umore onekoa. Atzera bueltatzea oso zaila zen hainbat bidaiatan ibili izan gara, Groenlandian adibidez. Han segurtasun sentsazioa aldakorra da, eta buruak laguntzen ez badizu, asunto txarra.

Zer diozu pandemiak ekarri digun egoeraren inguruan. Optimista zara?

Betidanik oso oinarrizko bizitza egin dut. Oinarrizkoa Tolosa eta Euskal Herrian. Nire bizitza Afrikako biztanle askorekin alderatuko banu luxuzko bizitza litzateke. Prekaritatearen muga ibili izan naiz aspaldi, diru sarrera finkorik gabe. Orain diru sarrera polita, baina ondoren, hilabete batzuetan akaso sosik jaso ez. Ez daukat ez baja ez opor ez langabezia saririk, baina nik aukeratuta, garbi utzi nahi nuke hori. Ez naiz gizarte neoliberal kapitalista honen ondorio, nire erabakien ondorio baizik. Batzuek idealizatu egiten dute nire hautua. «Hi bizi haiz, hi», esaten didate, baina bizimodu honek beste hainbat gauzari uko egitea ere bada-
kar.

Pandemiari buruz, gaia ezberdin kudeatzen da hemen edo Finlandian, Italian edo Txinan. Zientzietakoa naiz, ingeniaria bainaiz ikasketaz. Ez dut konspirazioetan eta hala-koetan sinesten. Gauzak entzuten, irakurtzen eta kontrastatzen saiatzen naiz, eta guk sortutako arazoak guk geuk konponduko ditugula uste dut, gure baliabide eta teknologiei esker.



Josu Izutueta eta Angel Ortiz 2003ko abuztuan, Nairobotarraren agurrean. Juan Carlos RUIZ | FOKU

Pandemiarekin, ezin zure txokotik irten. Gogorra?

Atzerrira ezin, Penintsulan ere ezer ez... Alternatiba bat bilatu behar izan dut, dugu, eta gurean, Euskal Herrian dugunari balioa eman diogu. Munduan oso leku gutxitan daude autoz ordu eta erdiko tartean Euskal Herrian ditugun txokoak eta lekuak. Iker Iriarterekin ari naiz elkarlanean, eta ibilbideak edukiz betetzen saiatzen ari gara. Aurten bezala, 2021ari begira ere atzerria ahaztu eta ibilbide tematikoak egitekotan gaude Euskal Herrian: Elkanoren espedizioaren ingurukoak, bertsolarien ibilbideak, artzaintza, bizikletaz zerbait...

Dena ez da arrisku gunean bizitzea izan. Gaztetan konfort gunean egon zinen...

Bai. 18 urterekin gau eskolan hasi nintzen lanean, gero HABEko irakasle bost hilabetez, eta oso soldata ona eskuratuz, Hondarribiko barnetegian.

*«Ez naiz gizarte neoliberal kapitalista honen ondorio, nire erabakien ondorio baizik. Batzuek idealizatu egiten dute nire hautua. ‘Hi bizi haiz, hi’, esaten didate, baina bizimodu honek beste hainbat gauzari uko egitea ere bada-
kar»*

80.000 pezeta hileko, pentsa zenbat izango zen gaur egun. 3.000 euro igual. Polizia batzuk matrikulatu ziren, eta nik ez nuen neure burua gai ikusi haiei euskara eskolak emateko. Utzi egin nuen. Jendeak lan asko egin du; orduan ere euskaraz bizi zintezkeen, baina baita euskaratik edo euskararen kontura ere. Paper fabrika hasteko aukera ere izan nuen, Aizarnazabal, paper ingeniari-
ritza bukatu berrian, baina hari ere ezetz esan nion. Nire ingeniari-
ritza ideiak harreman zuzenagoa zeukan natura baliabideekin fabrika batekin baino.

Eta ondoren, eta 40 urtez, ziurgabetasun horretan bizi izan zara. Nolakoa da hilero-ko soldata finkorik gabe bizi behar izatea?

Askotan korrontearen kontra igeri egin izan dut, izokinen pare. Nekosoa ere bada, ez baitakizu zenbat iraungo duzun.

Gaztetan inguruko askok beste bide bat hartuko zuela uste nuen, mendi gidariak eta beste izango zirela, baratzetik biziko zirenak, baina gehienek lanbide finko bat dute, funtzionarioak dira, etxe bat... Askok kritikatzin dute daukagun gizarte eredu hau, baina sistema horretan sartzeko desiratzen daude; izan enpresa kapitalista handi batean kontratu mugagabea lortuta, edo administrazioan lanpostua eskuratuta. Une zailak pasa izan ditut, baina ez dut dudarik eduki hautatutako bizimodura bueltatuko nintzela. Izango da nire baina bizimodu erosoagorik; nik gustukoa dut.

Konta dezakezun arte, zenbaterainoko larritasuna ekarri dizu sistema horretatik kanpo bizitzeko hautuak?

Beno ba Letxu kaleko etxeko alokairua ordaindu ezinik ibiltzetik hasi (Tolosan 35 urtez bizi izan naizen oinarrizko kan-

«Gure gizarteak
sekulako jauzia
eman du. Adibidez,
nire aita artzaina
zen, ama neskamea.
Irauteko bizi izan
ziren haietatik
oporretara
kapritxoz oso urrun
joatera pasa gara
belaunaldi bakar
batean, eta hori oso
zaila da. Tarteka,
daukagun
bizimoduaz
hausnartu beharko
genuke»

pamentua), mendi federatu txartela edo telefonoa ordaintzeko sosik ez edukitzea, medikamentuak erosteko... Mailegu asko eskatu izan ditut; oraindik ere badut bat, bigarren eskuko furgoneta berria ordaintzeko. Dirua erosi izan dut sarri. Trapezista baten antzekoa izan naiz, beti muga-mugan, baina zorionez lagun sare sendoa eduki dut estutasunean nengoenean laguntzeko prest egon dena, eta ez soilik alor ekonomikoan. Bi arreba ditut, eta haiekin ere oso ondo moldatzen naiz. AEBetan furgoneta lapurtu zidaten, eta lagun artean halako diru poltsa bat egin zen furgoneta hori ordain nezan...

Eskerrak sare horri...

Bai. Sozialismoa denon ahotan dago gure egunerokoan, baina ni hitz joko bat egin zalea naiz hitz horrekin. “Sos-zialismo” da bata, alegia sosari, diruari erreparatzen dion sozialismoa. Eta bestea “SOS-zialismoa”, alegia SOS-a aldarrikatzen duena. 2.000 euro irabazten duten 20 lagunek, 50na eurekin, milieurista bat sostenga dezakete, eta horren beharra duten herritar asko badaude, batez ere pandemia garai honetan. Pentsa datu honetan: 600.000 euroko ondasuna duena munduko % 1 aberatsenen artean dago. 60.000koa duena, munduko % 10 aberatsenen artean egongo da, eta Euskal Herrian horrelako jende asko gaude. Munduko *top*-ean bizi gara, eta, adibidez, Senegalera, Alaskara edo Nepalera bidaiatu eta ikusten duzu klima, distantziak eta bakardadea zer diren. Gu egunak mozten ari direlako kexatzen gara, eta Tromson, Norwegian, hiru hilabetez ez dute eguzki izpirik ikusiko. Baina han sekulako bizi maila dutela

sinetsita gaude. Gure gizarteak sekulako jauzia eman du. Adibidez, nire aita artzaina zen, ama neskamea. Irauteko bizi izan ziren haietatik oporretara kapritxoz oso urrun joatera pasa gara belaunaldi bakar batean, eta hori oso zaila da. Tarteka, daukagun bizimoduaz hausnartu beharko genuke.

Leporatu izan al dizute noiz-bait zuk ikusi ez edo ikusi nahi ez dituzun kontraesanak badituzula?

Bakarren batek edukiko zuen gogoia, ez dakit. Ni jaso dudana elkartasuna itzultzen saiatu naiz, eta saiaturik naiz, gauza naizen bitartean. Hemen eta kanpoan. Gurekin musu truk bidaiatu izan dutenak badira, arrazoi ezberdinak tarteko une hartan arazoak zituztelako. Elkartasunean sinesten dut, baina kontraesanak denok dauzkagu, zalantzarik ez. Nik ere bai.

Ohikoa omen, gu baino okerrago dauden toki batzuetatik oporretatik bueltatzean, buru

janean aritzen garela, hango eta hemengo egoerak ikusita. Zu aritzen zara?

Normala ere bada, ezta? Baina ez etorritakoan bakarrik, baita joan aurretik ere. Gu Nepalera goazenean hilabeterako, askotan enpresari txiki bihurtzen gara langile izateari utzita; hango zamaketarien lan baldintzak eta soldata, sukaldariak... gure ardura dira. Esaterako, zamaketari batek orkatila bihurtzen badu eta beste bat hartu behar badugu... Biei ordaintzeko prest al gaude? Ez gara jabetzen, munduko herritar gutxi bezala, oporretara joan eta etxera bueltan ziur aski joan garenean baino diru gehiago izango dugula kontu korrontean, bizi garen gizarteko pertsona askok oporrak ordainduak dituztelako.

Helmugaren bat zintzilik geratu al zaizu?

Autobusarekin edo furgonetaekin bai, gustura joango nintzateke Mongoliara esaterako.

Aspaldi hippyek Londrestik Nepalera egiten zituzten bidaien antzekoren bat ere egin nahiko nuke. Errepikatu, asko errepikatuko nituzke. Hego Ameriketara barrena asko disfrutatu dut bertako herritarrekin; komunikaziorako beste jarrera bat dute, eta hizkuntza bera jakiteak ere asko errazten du hori.

Eta ezagutu izan dituzun bi edo hiru txokorik gustukoenak aukeratzeko eskatuko banizu? Konpromiso handia?

Lotura kulturalagatik eta, Laponia esango nizuke. 1984an joan nintzen lehen aldiz, oso gazte, eta hogeit bat aldiz itzuli naiz. Han amets asko sortu ziren, etorkizuneko bidaiak zoragarriak: Groenlandia, Hiru Pauso Hiru Norabide, Artikoan... 16 urterekin deskubritu nuen Laponia David Fernandez dokumental batean, eta uste dut orduan jabetu nintzela nire bideak gehiago izango zuela horizontaletik bertikaletik baino. Hala izan da.



Nairobiarra autobusa, 2010. urtean. Raul BOGAJO | FOKU